Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

DEIALDIAREN OINARRIAK HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO BORTZIRIETAKO MANKOMUNITATERAKO ZERBITZUEN ARDURADUN BAT ALDI BATERAKO ETA LAN-ARAUBIDEAN KONTRATATZEKO, HAUTAPEN PROBEN BIDEZ. .

BASES DE LA CONVOCATORIA PARA LA CONTRATACIÓN TEMPORAL Y EN RÉGIMEN LABORAL, A TRAVÉS DE PRUEBAS SELECTIVAS, DE UNA PERSONA PARA ENCARGADO DE LOS SERVICIOS PARA LA “MANCOMUNIDAD DE BORTZIRIAK-CINCO VILLAS PARA LA GESTIÓN DE LOS RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS”.

**1. Oinarria. Deialdiaren xedea.**

Deialdia honen xedea da zerbitzuen arduradun bat aldi baterako eta lan-erregimenean kontratatzea, hautaketa-proben bidez.

Lansaria: lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen C mailari dagozkion oinarrizko lansariak izanen ditu, gehi Mankomunitateak lanposturako ezarrita dituen osagarriak.

**Base 1.- Objeto de la convocatoria.**

Es objeto de la presente convocatoria la contratación de forma temporal y en régimen laboral, mediante pruebas de selección, de una persona para encargado de los servicios en el ámbito de Bortziriak.

Este contrato estará dotado de las retribuciones básicas correspondientes al Nivel C del Estatuto del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, más los complementos que la Mancomunidad tenga establecidos para el puesto.

**2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak.**

Lanposturako hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Batxiler titulua edo baliokidea izatea edo, eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana.

**Base 2.- Requisitos de las personas participantes.**

Las personas aspirantes al puesto de trabajo deberán reunir los siguientes requisitos en la fecha en que termine el plazo de presentación de solicitudes:

a) Tener la nacionalidad española, ser nacional de un Estado miembro de la Unión Europea o nacional de un Estado incluido en el ámbito de aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Comunidad Europea y ratificados por España, que contemplen la libre circulación de trabajadores.

b) Tener cumplidos dieciséis años y no exceder de la edad máxima de jubilación forzosa.

c) Estar en posesión del título de Bachiller o equivalente o del resguardo de haber abonado los derechos de obtención del título, antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

d) Poseer las capacidades físicas y psíquicas necesarias para el ejercicio de las correspondientes funciones.

e) No hallarse en situación de inhabilitación ni suspensión para el ejercicio de funciones públicas y no haber sido separado/a del servicio de una Administración Pública.

f) Euskara hizkuntza ahozko gaitasuna egiaztapena (C1 ahozkoan, B2 idatzizkoan). Titulaziorik ez dutenek eskatutako hizkuntza-maila egiaztatu ahal izanen dute Epaimahaiak zehaztutako probak gaindituz.

f) Acreditar el conocimiento oral del euskara correspondiente al nivel C1 (oral) –B2 (escrito).
Las personas que no dispongan de titulación podrán acreditar su conocimiento mediante la superación de las pruebas que determine el tribunal.

g) B mailako gidabaimenaren jabe izatea eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

g) Estar en posesión del permiso de conducir de categoría B, en la fecha en que finalice el plazo de presentación de solicitudes.

h) ezagutza informatikoak izatea: Excel, Word, posta elektronikoa, etab.

h) Tener conocimientos de informática: Excel, Word, correo electrónico, etc.

i) Lan gabe egon beharko dute, eta lan eskatzaile gisa edo lana hobetzeko gisa inskribaturik Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren menpeko enplegu agentziaren batean eta dagokion zundaketan sartua egotea.

i) Estar desempleadas e inscritas como demandantes de empleo o en mejora de empleo en alguna de las Agencias de Empleo dependientes del Servicio Navarro de Empleo-Nafar Lansare e incluido/a en el correspondiente sondeo.

**3. oinarria. Eginkizunak:**

1. Garbigunea kontrolatzea eta kudeatzea eta jendearentzat irekitzea.
2. Kontratatutako zerbitzuen eta bilketa-puntuen kontrola.
3. Mankomunitatearen nabean biltegiratutako materialen antolamendua eta kontrola.
4. Mankomunitateko kolektorearen eta zabortegiaren segurtasun-sistemak kontrolatzeko lanetan laguntzea.
5. Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak egiten laguntzea.
6. Komunitateko konpostaje-guneetako arretaren jarraipena egiten laguntzea.

**Base 3.- Funciones a realizar:**

1. Control y gestión del Punto Limpio y apertura al público.
2. Control de los servicios contratados y de los puntos de recogida.
3. Ordenación y control de los materiales almacenados en la nave de la Mancomunidad.
4. Apoyo en las labores de control de los sistemas de seguridad del colector y vertedero de la Mancomunidad.
5. Apoyo en la realización de campañas de sensibilización y concienciación.
6. Apoyo en el seguimiento de la atención de los puntos de compostaje comunitario.

**4. oinarria. Agerpena.**

Interesdunak agertzen ahal dira Mankomunitatean, Etxalarren, 2022ko otsailaren 2ra arte. Curriculuma aurkeztu beharko dute. Helbide elektroniko honetara ere bidali ahal izanen da: txomin@bortziriakzabor.com.

**Base 4.- Presentación.**

Las personas interesadas podrán presentarse en la Mancomunidad en Etxalar hasta el día 2 de febrero de 2022, debiendo aportar curriculum vitae. También podrán enviarlo por correo electrónico a la siguiente dirección: txomin@bortziriakzabor.com.

**5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.**

5.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

**Base 5.- Tribunal calificador.**

5.1. El Tribunal calificador estará compuesto por:

-Lehendakaria: Miguel M.ª Irigoien Sanzberro.
Ordezkoa: Julen Errandonea Martin.
-Mahaikidea: Txomin Elgorriaga Astondoa.
Ordezkoa: Leire Erasun San Sebastián.
- Mahaikidea: Mikel Sanchez Etxegia.
Ordezkoa: Xabier Telletxea Iratzoki.
- Mahaikidea-idazkaria: Izaskun Gortari Sein.
Ordezkoa: M. Jose Larrayoz Ariztegui.

- Presidente: Miguel M.ª Irigoien Sanzberro.
Suplente: Julen Errandonea Martin.
- Vocal: Txomin Elgorriaga Astondoa.
Suplente: Leire Erasun San Sebastián.
- Vocal: Mikel Sanchez Etxegia.
Suplente: Xabier Telletxea Iratzoki.

- Vocal-secretaria: Izaskun Gortari Sein.
Suplente: M.José Larrayoz Ariztegui.

5.2. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan.

5.2. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de la mayoría de sus miembros. Resolverá por mayoría todas las cuestiones que puedan plantearse en relación con la interpretación y aplicación de las presentes bases. Asimismo, el Tribunal podrá incorporar asesores especialistas para todas o algunas pruebas.

**6. oinarria. Probak.**

**Base 6.- Pruebas.**

6.1. Proba teorikoa euskaraz eta gaztelaniaz: Egin beharreko lanei buruzko idatzizko proba bat egin beharko da (gehienez 40 puntu eta gutxienez 20).

6.1.- Prueba teórica en euskera y castellano: Consistirá en la realización de una prueba escrita, relacionada con los trabajos a realizar (puntuación máxima de 40 puntos y mínima de 20 puntos).

6.2. Proba praktikoa: Lanpostuarekin zerikusia duten lanak ezagutzeari buruzko hainbat funtzio praktiko egingo dira.

6.2. Prueba práctica: Consistirá en la realización de varias funciones prácticas sobre conocimiento de los trabajos relacionados con el puesto de trabajo.

Epaimahaiak erabakiko du probaren iraupena. Puntuazioa: 40 puntu gehienez eta 20 puntu gutxienez.

El tiempo máximo de realización de esta prueba lo determinará el Tribunal y tendrá una puntuación máxima de 40 puntos y mínima de 20 puntos.

6.3. Elkarrizketa: gehienez 5 puntu izanen ditu.

6.3. Entrevista personal: tendrá una puntuación máxima de 5 puntos.

**7. oinarria.– Lan esperientziaren balorazioa.**

**Base 7.- Valoración de experiencia.**

-Lan esperientzia (gehienez 15 puntu):

-Experiencia laboral (máximo 15 puntos):

1. Administrazio Publiko batean deialdiaren xede den lanpostuarekin zerikusia duten lanpostuetan emandako zerbitzu-urte bakoitzeko edo zati proportzional bakoitzeko: 1 puntu, eta gehienez, 10 puntu.
2. Deialdiaren xede den lanpostuarekin zerikusia duten lanpostuetan titulartasun publikoko edo pribatuko enpresa batean emandako zerbitzu-urte bakoitzeko edo zati proportzionaleko: 0,5 puntu, gehienez 5 puntu.

1. Por cada año de servicio o parte proporcional, prestado en una Administración Pública en puestos relacionados con el puesto de trabajo objeto de la convocatoria: 1 punto hasta un máximo de 10 puntos.

2. Por cada año de servicio o parte proporcional, prestado en una empresa de titularidad pública o privada en puestos relacionados con el puesto de trabajo objeto de la convocatoria: 0,5 puntos hasta un máximo de 5 puntos.

**8. Oinarria. Kontratazioa egiteko izangaien zerrenda.**

8.1. Izangaien kalifikazioa bukaturik, epaimahaiak aldi baterako kontratazioa egiteko izangaien zerrenda argitara emanen du Mankomunitateko Iragarki Oholean eta web orrian, lortutako puntuen arabera.

8.2. Berdinketa egonez gero, berariazko proban lortutako puntuazioaren arabera erabakiko da. Hala ere berdinketa mantenduz gero, jendaurreko zozketa egingo da.

8.3. Izangaien zerrendan hurrenkera jartzeko kontuan hartuko da hautapen probetan lortutako puntuazioa, handienetik hasita.

8.4. Epaimahaiak Mankomunitateko Juntari bidaliko dio prozeduraren ostean osatutako zerrenda, aldi baterako kontratazioak egin ahal izateko.

**Base 8.- Relación de personas aspirantes a la contratación.**

8.1. Terminada la calificación de las personas aspirantes, el Tribunal hará pública en el Tablón de Anuncios y Web de la Mancomunidad la relación de personas aspirantes a la contratación temporal por orden de puntuación obtenida.

8.2. Los empates en la puntuación que pudieran producirse entre las aspirantes aprobadas se resolverán por la puntuación de mayor ponderación del conjunto de la prueba y, si persistiere el empate, éste se resolverá mediante sorteo público.

8.3. La prioridad en la lista de aspirantes se establecerá en función de la mayor puntuación obtenida en las pruebas selectivas.

8.4. El Tribunal calificador remitirá posteriormente a la Junta de la Mancomunidad la relación de personas aspirantes para la contratación temporal resultantes del proceso selectivo, a efectos de proceder a las contrataciones.

**9. oinarria. Datuen babesari buruzko informazioa.**

Datuen tratamenduaren arduraduna:
Identitatea: Bortzirietako hiri-hondakin solidoak kudeatzeko Mankomunitatea.
Helburua: Enplegu deialdiak kudeatu, botere publikoen erabileraren baitan.
Oinarri juridikoa: 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.
Eskubideak: Datuak eta beste eskubide batzuk eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, Mankomunitatearen bulegoetara joz.
Informazio gehiago: Pribatutasun-politika: http://www.bortziriakzabor.com/es/politica-privacidad/

**Base 9.- Información protección de datos.**

Responsable de tratamiento de los datos:
Identidad: Mancomunidad de Bortziriak-Cinco Villas para la gestión de los residuos sólidos urbanos.
Finalidad: Gestionar las convocatorias de empleo en el ejercicio de los poderes públicos.
Base Jurídica: Decreto Foral Legislativo 251/1993, de 30 de agosto, del Texto Refundido del Estatuto del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas de Navarra.
Derechos: Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos así como otros derechos, dirigiéndose a las dependencias de la Mancomunidad.
Más información: Política de Privacidad de http://www.bortziriakzabor.com/es/politica-privacidad/

Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

Datuak mantentzeko denbora: Datuak gordeko dira aipatutako helburua lortzeko behar den denboran eta Mankomunitateak tratamenduari buruzko erantzukizunak dituen bitartean. Gainera, Artxibo eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean araututakoa bete behar da.

Datuen hartzaileak: Datuak eman ahalko dira epaile eta auzitegiei, indarrean dagoen legedia konplituz, eta argitaratuko dira mankomunitateko web orrian eta iragarki-oholetan, deialdian ageri den bezala.

**10. oinarria. Errekurtsoak.**

Deialdi honen oinarrien aurka edo berau aplikatzeko egintzen aurka, hautara, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.
c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo errekurritu nahi den ekintza jakinarazten denetik hasita.

Gainera, epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, Mankomunitateko lehendakariari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi ondotik.

Tiempo de conservación de los datos: Los datos se conservarán el tiempo necesario para el cumplimiento de la finalidad señalada y se almacenarán mientras la Mancomunidad pueda tener responsabilidades derivadas de su tratamiento. Igualmente deben cumplirse las normas de conservación establecidas en la Ley Foral 12/2007, de 4 de abril, de archivos y documentos.

Destinatarios de los datos: Los datos pueden ser cedidos a jueces y tribunales en cumplimiento de la legislación vigente y se publicarán en la web de la mancomunidad y en los tablones de anuncios según se indica en la convocatoria.

**Base 10.- Recursos.**

Contra la convocatoria, sus bases y los actos de aplicación de la misma, cabe interponer, optativamente, alguno de los siguientes recursos:

a) Recurso de reposición ante el mismo órgano autor del acto, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su notificación o publicación.

b) Recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra, en el plazo de dos meses, desde el día siguiente al de la notificación o publicación del acto o acuerdo recurrido.

c) Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra, en el plazo de un mes desde el día siguiente a la notificación o publicación del acto o acuerdo recurrido.

Además, contra las decisiones del Tribunal calificador cabrá el recurso de alzada ante el Sr. Presidente de la Mancomunidad, dentro del mes siguiente a la fecha de la notificación de acto o acuerdo recurrido.

Etxalar, 2022ko urtarrilaren 27a.

Bortzirietako
Hiri-Hondakinen
Mankomunitatea